

Harry Potter

Harry Potter fantasiazko eleberrien sail bat da, J. K. Rowling ____1____ britainiarrak idatzia. Zazpi eleberri dira guztira. Harry Potter mutikoaren eta haren adiskide Ron Weasley eta Hermione Grangerren zazpi urteko istorioa azaltzen du, Hogwarts magia eta azti ____2____.

1 abeslari – margolari - idazle

2 eskolan – museaon - herrian

Hariaren korapiloa Harry Potterren eta Lord Voldemort azti maltzuraren arteko ____3____ da, Voldemortek Harryren gurasoak ____4____ baitzituen, mundu magikoa bereganatu nahian.

3 amodioa – borroka - maitasuna

4 hil – jaio - jan

Lehenengo liburuaren argitalpenetik, Harry Potter eta Sorgin Harria, 1997ko ekainaren 26an, liburuek sekulako ospea, kritika positiboak eta arrakasta komertzialak ____5____ dituzte mundu osoan. Publiko heldua nahiz irakurle gazteak erakarri dituzte eta, askotan, gazte helduen literaturaren giltzarritzat jotzen dira. 2018ko otsaila arte 500 milioi liburu-ale baino gehiago saldu ziren mundu osoan, historiako liburu salduenen serie onena bihurtuz, eta laurogei ____6____ itzuliak izan dira

5 galdu – lortu - erosi

6 herritara – hizkuntzatarra - eskolatarra



Pertsonaia nagusiak:

Harry Potter: 1980ko uztailaren 1ean jaio zen. James Potter eta Lily Evansen ___7___ da. Bere gurasoek Fenixaren Ordenakoak ziren, beraz, Lord Voldemort eta bere *mortifagoen* aurka borrokatu behar zuten. Harry Potter urte bat zuela, Halloweeneko gauean Voldemort Potterren etxean azaldu eta mutikoaren gurasoak hiltzen ditu. Harry hil ezinean, gaiztoak bere burua nahigabe hil zuen.

7 alaba – semea- aitona

Harry bere osaba-izebarekin ___8___ joaten da, Vernon eta Petunia Dursley, eta baita bere adin bereko ___9___ ere, Dudley. Han hamar ilun urte pasatzen ditu Hagrid atezaina bere bila etorri eta Hogwarts eta magia mundua erakusten dio arte. Hogwartsen Ron eta Hermione ezagutzen ditu. Quiddich kiroleko bilatzaile bihurtzen da nahi gabe, bihurrikeria baten ondorioz. Hogwartsen igarotzen dituen urteetan, bere familiaren historia ezagutzen hasten da, baita etorkizunean aurre egin beharko dizkien arazoak ere.

8 ikastera – bizitzera – jolastera

9 lehengusinarekin - lehengusuarekin - anaiarekin

ZENBAT URTE PASATZEN DITU HARRYK BERE OSABA-IZEKOREN ETXEAN?

Ronald Weasley: Ron bere familiako mutilik txikiena da. Haren gainetik bere anaiak Charlie, Bill, Percy, Fred eta George daude. Arreba txiki bat ere du, Ginny. Ron triste sartzen da Hogwartsen, bere burua anaia zaharragoek izan duten arrakasta berdindu ezinean ikusten duelako. Eskolako trenean Harry ezagutzen du eta

segituan __10__ egiten dira. Harryri oso interesgarria iruditzen zaio Ron, hura magiaz inguratua hazi delako. Liburuetan zehar Ronek eta Harryk bere elkartasuna finkatzen dute. Haien artean haserre batzuk dituzte, Ronek azpian gelditzeko beldurra du eta.

10 lagunak -etsaiak - magoak

NOLA DUTE IZEN RONEN NEBA-ARREBEK?

Hermione Jane Granger: muggle familia batetik dator, hau da, familia ez magiko batetik. Oso buruargia da, baita pixka bat beldurtia ere, baina azkenean bere ausartasuna frogatzen du. Hermionek, Harryk eta Ronek __11__ ezagutzen dute elkar. Hasieran ondo ez konpondu arren, azkenean lagun oso onak bilakatzen dira. Hermione pertsona zintzoa eta zuzena da, eta beldurra izan arren, beti esaten ditu bere iritziak. Honek haserreak sortzen ditu Harryrekin, baina azkenean Hermionek izaten du arrazoia.

11 hegazkinean – autobusean - trenean